

XEDAPEN OROKORRAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

803

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko legearena: 5/2011 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea aldatzeko dena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.b) artikuluan xedatzen denez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak Jaurlearitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, baldin eta nabarmenak badira, dokumentuen esanahia aldatzen ez badute, eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Zuzenketa egiteko eskaria testua argitaratzeko agindua eman duen organoak egingo du.

Horrelako hutsak aurkitu dira lege honetan: 5/2011 Legea, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legea aldatzeko dena. Lege hori 2011ko abenduaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 245. zenbakian, eta zuzendu egiten da jarraian.

Legearen hogeita hirugarren artikuluan, bilaketa, salbamendu edo erreskate zerbitzuengatiko tasa, 111. quinquies artikulua, 2. paragrafoan, honako hau dioenean:

«Bitarteko materialak»

Honako hau esan behar du:

«2.– Bitarteko materialak»